

Azken afaria

Azken afaria

Lau ebanjelio-liburuetan kontatzen denez, Jesusek, gurutzean hil bezperan, bere *apostoluekin batera egin zuen bazko-afaria, juduen ohituraren arabera. Afari horretantxe eratu zuen eukaristia, protestanteek afari santua ere deitzen dutena.

Ik. Jaunaren afaria; Aldareko sakramentua.

Azken gomendioa

Hileta-mezaren ondoren, eta hilotza elizan bertan dagoelarik, egiten den erritoari deritza horrela. *Ur bedeinkatuz ureztatu eta intzentsatu egiten dute hilotza, elizatik kanposantura atera aurretik. Otoitz baten ondoren, kantuz egiten diote hilari azken agurra.

Kontziliondoko liturgi eraberrikuntzaren aurretik, hilaren absoluzioa deritzan errito hori.

Ik. Azken gomendioa; Hileta-erritoak.

Azken iraukortasuna

Kristau-teologian, eta *predestinazioari buruzko irakatsiarekin lotuta, zera esan nahi du: fedeari eta graziazko egoerari eustea, *betiko bizitza iristeko bidean. Irakasbide katolikoaren arabera, inor ez dago ziur azkeneraino zintzo iraungo duen ala ez; *otoitzaren bidez eskatu behar omen zaio hori Jaunari. Kalbin-en eritziz, ordea, Jainkoak hautatuak ziur daude azken iraukortasunaz.

Azken judizioa

Sin.: Guztien judizioa; Azken kontua

Judaismoak, kristautasunak eta islami-moak sinesten dutenez, munduaren amaian hildako guztien judizioa gertatuko da, non gaiztoen eta zintzoen bereizkuntza historikoa egingo baita, haiek betirako galduz eta hauek betirako salbatuz.

Kristautasunak Kristoren azken etorrera aintzazkoarekin edo *parusiarekin eta hilen *piztuerarekin lotzen du azken judizioa. Horrekin batera gertatuko omen da munduaren azkena ere.

Ik. Hilen judizioa; Eskatologia; Gerorengoak.

Azken kontua

Ik. Azken judizioa.

Azkenburuko

Paul Tillich-ek *fedearen helburua deitzen du horrela: *Ultimate*. Zer absolutuaren esanahi berdinekoa da orduan azkenburukoa,

Jainkoaren *irudi partikularrak gainditzen dituen.

Azkenkiak

Ik. Gerorengoak.

Azterraldia

Lehen mendeetako Elizak, bataioaren aurretik *katekumeno edo bataiagai ezartzen zien proba, beraien fedeari, bizierari eta *kristau-ikasbidearen ezagutzari buruz.

Hitz berbera erabiltzen da Eliza Katolikoan, ordena sakratuak hartzeko nahiz *erlijioso-profesioa egiteko daudenei ezertzen zaien examina adierazteko.

Aztia

Sin.: Zorilaria

Ezkutukiak eta gertakizunak formula eta baliabide kabalistiko edo naturaz-gaindikoen bidez ezagutzen omen dituen; aztiapenetan diharduena, edo aztigoa bere lanbidetzat duena.

Agirre Asteasukoak aztizaina erabiltzen du aztiaren dohaina adierazteko. Txarrerako adiera ematen dio berak. Horregatik aztikeria hitza erabiltzen da aztiapenaren konnotazio magikoa adierazteko.

Azti-mota eta izen ezberdin asko dago, gertakizunari eta *zoriari igartzeko erabiltzen diren baliabideen arabera.

Erlijio handi batzuk eta bereziki kristautasunak gaitzetsirik eta debekaturik dute aztikeria, sineste eta antze magikoez baliatzen dena.

Ik. Magia; Aztiapena.

Aztiapena (Aztiketeta)

Aztiaren egintza da: ezkutukien eta gertakizunen igartzapena, zientziaz kanpoko baliabideekin lortua. Mila eratakoak izan daitezke baliabideok; horien arabera banatzen dira aztiapen-sistemak: ornitomantzia (txorien hegaldiaren bidez), *astrologia (astrotroen fenomenoari begira), *kiromantzia (eskuko arrastoak aztertuz), *aruspizetza (animalia hilen barrunbeak ikuskatuz), *horoskopo (jaioberrien etorkizuna asmatzea, jaiotzako uneko *izarren egoera ikusiz), *nekromantzia (hildakoei kontsulta eginez), etab.

Horoskopoi oinarri zientziazkoa airtortzen diote batzuk. Gizon-emakumeek etorkizuna ezagutzeko duten grinan sustraitez da aztiapena; ahalbide gisa ezezik, arriskuz beterik ikusten bait du gizakiak bere eskutian ez daukan eta programatu ezin duen georua.

Latinezko hitzak (divinare) eta hortik eratorritako hizkuntza modernotakoak adierazten dutenez, erlijiozko zentzua du aztiapenak, mundu-ikuskeraren probidentzialistan nahiz deterministan nahiz magiazkoan oinarritua izan hori.

Aztiapen magiazkoa sortilegioaren sinonimoa da; beronen konnotazio edo adiera txarrerakoan aztikeria esan ohi dute. J.M. Barandiaranek orokorki *magia bere alde guztietan ulertzeko erabiltzen du aztikeria. Hemen igarpen edo asmaketa magikoa adierazteko bakarrik erabiliko dugu.

Erljio guztietan egon da zabaldurik gutxiasko aztiapenaren lanbidea; sarritan benetako bizibide edo erlijiozko zerbitzu eratuia izan da aztigoa. Baina erljio handienek susmo txarrez begiratu edota debekatu egin dute ofizialki aztiapena, batez ere mundu-ikuskeraren determinista eta magikoan oinarritzen dena eta baliabide automatikoak erabiltzen dituenak: hau da, magiarekin lotu dute aztiapena, eta aztikeriaren txarrerako adiera eman diote.

Euskal mitologian ezaguna da magiazko aztiapena, *adurraz edo azti-zainaz baliatzen dena: giza gorputza ordezkatzeko duen kandela erretzea, lapurra zein izan den asmatzeko bidea omen zen, kandelarekin batera lapurra ere suntsituz joango omen zelako; era berean txanponak duen irudiak halako gaizkilea irudikatzen duelarik, txanpona bihurritzean eta sutara botatzean, gaizkilea ere makurturik geldituko zela uste izaten zuten.

Kristautasunak ere gaitzetsi egiten du horrelako aztiapena, eta sarritan aztiaren edonolako lan, egiazko erljioaren kontraktatzat jo izan du, aztiaren inguru guztiari txarrerako adiera emanaz.

Bide horretatik "aztikeria" hitza zabaldu da euskaraz.

Euskal autoreek aztikeria eta *sorginkeria biak lotzen dituzte sarritan: Lardizabalek eta Agirre Asteasukoak, esate baterako; azken honek honela dio: "Beguira, aztinanz, edo sorginquerietan sinistu dezun. Aztien

icena ematen zate, lurpean ezcutaturik dau den, gauzac ecusten dituela esan oi dan, aec. Ez da onelaco gauzac etsayaren lagunzagabe ecusi ditzaqueanic. Alaere ibilli oi dira cembait aztien, edo sorguinen otspena duen atso guertzurtien billa, lurpeco ondasunac, edo bestela ezcutatu zaizten gauzac argutzeco" (Eracusal-diak, II, 21).

Badago ordea, erljio gehienek, baita kristau-Elizek ere zilegitzat jotzen duten aztiapena; areago, *erljiozikizun baliozkotzat hartzen dutena: Jainkoaren edo jainkoen jakindurian eta munduarekiko goi-arduran edo *probidentzian oinarritzen dena. Aztiatzeko erabiltzen diren baliabideak erljiozko fede horretan oinarritzen dira, eta Jainkoaren edo jainkoen asmoa eta nahia ezagutzea da orduan aztiapenaren helburua; horiek halako zantzutan agertzen direla uste izaten bait da. Horrela, ametsen bidez gertakizunei igartzea, ausaz edo datoak boteaz, edota zotzeginez inoren etorkizuna asmatzea, xedatzea edo erabakitzea zilegitzat jotzen dituzte: areago, erljiozko lanbide jatortzat.

S. Frantzisko Asiskoak Ebanjelioko irakurgai bat ausaz aukeratu eta irakurri ondoren erabaki zuen bere biziera berria.

Ik. Determinismoa; Magia; Probidentzia; Fatalismoa.

Paulo Agirrebaltzategi

Aztibegia

Ik. Aztizaina.

Aztikeria

Ik. Aztia; Aztiapena.

Aztizaina

Aztiaren igartzeko ahalmena da. Igarmen-dua ere esaten da.

Honela dio Agirre Asteasukoak (Eracusal-diak, II, 211): "Lasayac izan oi dira atzenean, azti-zaña, edo iguerrimentuaren doaya duela uste duenac. Beguira zañac niri eman ezquero, esan oi due"